

Rax Rinnekangas

Zerkalo _Espejo ruso



La Fundación Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía (www.coff.es) y el Centro Internacional de Cultura Contemporánea, CICC, inauguran la exposición del artista y cineasta finlandés, Rax Rinnekangas (Premio Nacional de Finlandia de fotografía), "Zerkalo - Espejo Ruso (homenaje a Andrei Tarkovsky)". Junto con las fotografías presentamos dos películas de Rax Rinnekangas, "Zahara&Urga" (2005) y "Château de L'âme" (2004); y dos películas, "Mirror" (1974) y "Andrei Rublev" (1996) dirigidas por Andrei Tarkovsky, director legendario de cine ruso (1932-86), a quien está dedicado este proyecto. La exposición se podrá ver desde el 16 de noviembre hasta el 18 de diciembre en el edificio de Tabacalera (Pº Duque de Mandas, 52). El horario de apertura al público será de martes a viernes de 17 h. a 21 h., sábados y domingos de 11 h. a 14 h. y de 17 h. a 21 h.; los lunes la exposición permanecerá cerrada.

Organizan

FUNDACIÓN
COF CICC Centro Internacional de
Cultura Contemporánea
Kultura Garaikidearen
Nazioarteko Gunea

Patrocinan



EL DIARIO VASCO

FRAME

Ministerio de
Educación finlandés

Art council of
Finlandia

Colaboran

GALERIA DIECISEIS
san sebastián



STUA
mobilario contemporáneo

Rax Rinnekangas

Zerkalo- Espejo Ruso es un viaje fotográfico hacia la luz de la otra Rusia

El trabajo del multiartista finlandés **Rax Rinnekangas** (nacido en 1954) es una serie de impactantes fotografías a color que describen "esa luz sacra donde la Madre Rusia y su original estilo de vida siguen siendo posibles", dice el artista. Esta luz espiritual del pasado ruso sigue iluminando al enorme y misterioso país en los centros de sus ciudades, pueblos, pequeñas ciudades y en sus lugares culturales y religiosos que existen en todas las partes de la Federación. Bajo esa luz el pueblo ruso —que se fue creando influido por varias culturas durante la sangrienta historia— fue retrocediendo a la era donde su estilo de vida solía ser tremadamente disciplinado bajo los diferentes sistemas políticos. Y esa antigua era no se recuerda como de pobreza entre los rusos modernos, pero sí como una época de escasez que les dio la única cualidad de su realidad: la seguridad, como contraste de la profunda inseguridad que existía entre toda la clase urbana. En los tiempos pasados, la mente de las personas estaba reglada por la conciencia de estar unidos y por la conciencia de la soledad. Esta dualidad creó el carácter de la población rusa, que mide todo en su vida mediante un profundo sentimiento primitivo.

Rinnekangas dice: "La luz metafísica de la Madre Rusia alcanzó su identidad antes de Lenin, quien creía en la Utopía; y como resultado de estas teorías la vieja Europa geográfica fue dividida en dos partes durante el Estalinismo. Dejando a Rusia al otro lado, en una oscuridad total. Pero la luz de la otra Rusia estuvo en la memoria de los rusos intelectuales quienes, con sacro poder, pudieron mantener el viejo patrimonio ruso, a través de las terribles décadas de Leningrado... La luz también desapareció dentro del proletariado ruso y la población rural, quienes todavía, hoy en día, como lo hicieron en los años 50, siguen viviendo bajo una remarcada economía independiente... Y cuando esta luz espiritual atrapa a un ruso emigrante, sin tener en cuenta su posición social, se experimenta una gran emoción, como pasó con Alexander Solzenitzyn, premio Nobel, durante su exilio en los Estados Unidos. En vez de su continuo odio por el Sistema Soviético, Solzenitzyn a menudo se acordaba de su casa; no de la realidad política rusa, pero sí de su propia cultura y esa luz rusa".

Rax Rinnekangas ha fotografiado su proyecto "**Russian**" en lugares tales como Tula, Yasnaya Polyana, varias regiones del Volga alrededor de Joskar Ola, Kazán y Kosmodemyansk, Kirow, Moscú, San Petersburgo, durante 1995-2005. Junto a este trabajo presentamos "**Mirror**"(1974), película dirigida por **Andrei Tarkovsky**, director de cine legendario ruso (1932-86), a quien está dedicado este proyecto, y "**Andrei Rublev**"(1996) del mismo autor.

En su filosofía, Tarkovsky subrayaba el significado de una imagen como frontera entre lo real y lo irreal. En estas fuertes imágenes visuales de **Rax Rinnekangas**, en su gran tamaño, el método tarkovskiano se convierte en realidad con un poder asombroso, abriendo las puertas a Rusia y a su luz mental, ambas de un modo fotográfico y cinematográfico.

Rax Rinnekangas

Nacido en 1954 en Lapland. Multiartista finlandés.

Trabajando en tres campos del arte, como fotógrafo, escritor y realizador de cine, **Rax Rinnekangas** es único en su generación y en Finlandia.

Sus temas centrales son la memoria de nuestro pasado, el ser humano y el objeto espiritual, físicamente en su espacio y en su luz.

Como fotógrafo, Rinnekangas ha viajado por veintidós culturas europeas durante 1980-2005, realizando largos proyectos de temas, tales como memoria de Auschwitz, luz y carácter del Viejo Continente y Rusia mental.

Su mirada está unida a la forma de ver tarkovskiana: bajo la imagen física siempre está la imagen espiritual.

Ha realizado más de 40 exposiciones privadas en Finlandia y en el extranjero –las últimas más notables, en lugares como el Museo Nacional de Arte Reina Sofía, Madrid, España (2003), el Memorial Place o el Museo de Sachsenhausen, Berlín, Alemania (2003)–.

Rinnekangas ha publicado alrededor de 20 trabajos; libros de fotografía, ensayos, novelas y pequeñas historias.

Como realizador de cine, Rinnekangas ha hecho varios documentales y películas sobre el arte de la pintura, escultura, arquitectura, Rusia y la situación de los Balcanes.

Ha vivido varios años en el extranjero; en España y Alemania, y vive ahora en la costa oeste de Finlandia.

Entre otros premios Rax Rinnekangas ha recibido el Premio Nacional finlandés de Fotografía en 1989 y el Premio Nacional finlandés de Literatura en 1992.

Zahara&Urga (2005 - duración: 60 minutos)

La nueva película de arte de Rax Rinnekangas, habla sobre lo que tarda el ser humano en encontrarse a sí mismo, y está ambientada en la Europa, Rusia y África del S. XX.

Es la historia de un chico silencioso que vive cerca del Círculo Polar Ártico, a quien un fenómeno de luz especial le dio la voz de otra persona.

El chico se convierte en fotógrafo y se pasa años viajando por las culturas europeas buscando esa luz que le ayudó a hablar.

Un día llega a la Estepa (urga) en la Rusia Central, donde un inglés llamado Andrew Powell, había fotografiado el mismo fenómeno de luz 60 años antes, durante el régimen Estalinista de 1930.

Empieza a investigar la vida de Powell a través de la historia reciente europea y africana, y durante esta investigación averigua que Powell conoció a Edward Hopper, pintor americano, en París en 1909. Además vivió en el País Vasco durante los años 30 donde fotografió el bombardeo de Guernica en 1937, antes de irse al norte de África.

Ahora, 60 años más tarde, nuestro fotógrafo llega a la casa de Powell, llamada Zahara, y aquí, con sus fotografías, descubre que las imágenes del misterio de Powell eran similares a las suyas, y que Powell había fotografiado los mismos lugares que él.

También descubre que Powell había muerto el mismo día que él había nacido.

Por lo que el misterio surge: ¿qué tienen en común estas dos personas?

En esta película tan especial, Rinnekangas sigue el tema de Tarkovsky sobre la nostalgia de su casa física y espiritual, pero en este caso es la propia identidad personal del protagonista.

Rax Rinnekangas escaneó casi 400 fotografías de él mismo para esta película, y también utilizó películas y fotografías de archivos como material.

Zahara&Urga es un homenaje a Mirror de Andrei Tarkovsky. Rax Rinnekangas llama al resultado "un foto-cine" y "un espejo europeo".

Château de l'âme (Castillo de alma, 2004 - duración: 56 minutos)

Es la película de Rax Rinnekangas sobre el encuentro espiritual de los trabajos del famoso compositor de música moderna finés Kaija Saariaho y el artista visual vasco-brasileño Nacho Angulo, y sobre el intento de entender qué es lo que el alma humana contiene.

Las cinco partes del song-cycle, Château de l'âme, compuesta en París por Kaija Saariaho, fueron acabadas en Madrid en 1995; durante la película Nacho Angulo usa unos 15.000 trozos de abedules para interpretar este song-cycle.

Durante este largo proceso, la imaginación de Nacho Angulo viaja entre abedules y bosques de abedules fineses, convertidose en una pequeña "niña abedul". Buscando el mítico fondo y el alma de estos árboles, así como la conexión entre Kaija Saariaho con este paisaje espiritual de su niñez en Finlandia al lado de la Madre Rusia.

Los artistas no se conocen, pero Kaija Saariaho da una respuesta a esta investigación a través de una básica descripción de su música: viajar componiendo hacia un espacio fuera del tiempo y no físico donde el alma puede vivir y habitar.

La película describe este encuentro en un cruce de fronteras de diferentes culturas. Y en este espacio, el punto inicial de Nacho Angulo para este proceso de trabajo, basado en música moderna, ha sido una profunda aflicción personal que necesita encontrar los contenidos del castillo del alma.

En Château de l'âme, el song-cycle, de cinco partes compuesto por Kaija Saariaho, funciona no sólo como la música de la película sino también como "actor". Luego esta música se escuchará durante la película, no solo como música de cine.

El vocal en este conmovedor documental es el famoso soprano americano Dawn Upshaw; la música está interpretada por la Radio Sinfónica, orquesta finlandesa dirigida por Esa-Pekka Salonen, director de la Filarmónica de Los Ángeles y uno de los maestros más destacados hoy en día.

Título: Zahara&Urga
País: Finlandia
Año: 2005
Dirección: Rax Rinnekangas
Guión: Rax Rinnekangas
Duración: 59', 40''

Sinopsis

La nueva película de arte de Rax Rinnekangas, habla sobre lo que tarda el ser humano en encontrarse a sí mismo, y está ambientada en la Europa, Rusia y África del S. XX.

Es la historia de un chico silencioso que vive cerca del Círculo Polar Ártico, a quien un fenómeno de luz especial le dio la voz de otra persona.

El chico se convierte en fotógrafo y se pasa años viajando por las culturas europeas buscando esa luz que le ayudó a hablar.

Un día llega a la Estepa (Urga) en la Rusia Central, donde un inglés llamado Andrew Powell, había fotografiado el mismo fenómeno de luz 60 años antes, durante el régimen Estalinista de 1930.

Empieza a investigar la vida de Powell a través de la historia reciente europea y africana, y durante esta investigación averigua que Powell conoció a Edward Hopper, pintor americano, en París en 1909. Además vivió en el País Vasco durante los años 30 donde fotografió el bombardeo de Guernica en 1937, antes de irse al norte de África.

Ahora, 60 años más tarde, nuestro fotógrafo llega a la casa de Powell, llamada Zahara, y aquí, con sus fotografías descubre que las imágenes del misterio de Powell eran similares a las suyas y que Powell había fotografiado los mismos lugares que él.

También descubre que Powell había muerto el mismo día que él había nacido.

Zahara&Urga es un homenaje a "Mirror" de Andrei Tarkovsky. Rax Rinnekangas llama al resultado "un foto-cine" y "un espejo europeo".

Título: Château de L'âme.

Año: 2004

Dirección: Rax Rinnekangas

Guión: Rax Rinnekangas

Duración: 56'

Sinopsis:

Es la película de Rax Rinnekangas sobre el encuentro espiritual de los trabajos del famoso compositor de música moderna finés Kaija Saariaho y el artista visual Vasco-Brasileño Nacho Angulo, y sobre el intento de entender qué es lo que el alma humana contiene.

Las cinco partes del song-cycle, Château de l'âme, compuesta en París por Kaija Saariaho, fueron acabadas en Madrid en 1995; durante la película, Nacho Angulo usa unos 15.000 trozos de abedules para interpretar este song-cycle.

Durante el largo proceso, la imaginación de Nacho Angulo viaja entre abedules y bosques de abedules fineses, convirtiéndose en una pequeña "niña abedul". Buscando el mítico fondo y el alma de estos árboles, así como la conexión entre Kaija Saariaho con este paisaje espiritual de su niñez en Finlandia al lado de la Madre Rusia.

Los artistas no se conocen, pero Kaija Saariaho da una respuesta a esta investigación a través de una básica descripción de su música: viajar componiendo hacia un espacio fuera del tiempo y no físico donde el alma puede vivir y habitar.

La película describe este encuentro en un cruce de fronteras de diferentes culturas. Y en este espacio, el punto inicial de Nacho Angulo para este proceso de trabajo, basado en música moderna, ha sido una profunda aflicción personal que necesita encontrar los contenidos del castillo del alma.

En Château de l'âme, el song-cycle de cinco partes compuesto por Kaija Saariaho, funciona no sólo como la música de la película sino también como "actor". Luego esta música moderna se escuchará durante la película, no solo como música de cine.

El vocal en este conmovedor documental es el famoso soprano americano Dawn Upshaw, la música está interpretada por la Radio Sinfónica, orquesta finlandesa dirigida por Esa-Pekka Salonen, director de la Filarmónica de Los Ángeles y uno de los maestros más destacados hoy en día.

Título: Andrei Rublev

País: Rusia

Año: 1964-1966

Dirección: Andréi Tarkovsky

Guión: Andrei Mikhalkov-Konchalovski, Andréi Tarkovsky.

Premios: Cannes: Premio de la Crítica Internacional —FIPRESCI—(1969).

París: Premio de la Asociación de Críticos de Cine (1969).

París: Estrella de Cristal de la Academia Francesa a la mejor actriz (1972).

Helsinki: Premio a la Mejor película del año (1973).

Stradford: Diploma en el Festival Internacional (1973). Premio Filtro (1973). Belgrado: Gran Premio (1973).

Belgrado: Premio a la mejor película del Sindicato de Trabajadores del Cine(1973).

Belgrado: Segundo Premio del Jurado de la Audiencia (1973).

Duración: 200'

Sinopsis:

A principios del siglo XV, el monje pintor Andrei Rublev acude junto con sus compañeros a Moscú para pintar los frescos de la catedral de la Asunción del Kremlin. Fuera del aislamiento de su celda, pronto comenzará a percibirse de las torturas, crímenes y matanzas que tienen aterrorizado al pueblo ruso.

Con Andrei Rublev, Tarkovsky marcó la yuxtaposición de películas en color y blanco y negro, práctica que continuó y fue refinando a lo largo de su vida profesional. En esta película el color sólo aparece en la última y tan conmovedora escena del montaje de las pinturas de Rublev, volviendo al final en una serie de episodios horrorosos sobre la vida y muerte en la época medieval. A estos episodios sigue la transformación de Rublev de un pintor idealista a un monje jurando el silencio como reacción al sufrimiento en el que la gente de su pueblo vive. Sólo en el final, catártico, es donde él se inspira al ver la lucha de un campanero por crear su primera campana de iglesia bajo la amenaza de la muerte por si falla.

Título: Mirror

País: Rusia

Año: 1972

Dirección: Andréi Tarkovsky

Guión: Andréi Tarkovsky y Aleksandr Misharin

Narrador: Innokenti Smoktunovski, Arseni Tarkovsky leyendo sus propios poemas


Duración: 106'

Sinopsis

Un hombre de hoy, un intelectual, escritor o director de cine, habla con su esposa de su situación actual, de lo que los ha llevado a distanciarse, del hijo que es su amor compartido. Las reflexiones y mutuos reproches evocan en este hombre recuerdos de los años transcurridos hasta ahora, de una infancia campesina llena de naturaleza y de sensaciones, de la guerra que alejó a sus padres, quienes terminaron también distanciados, del encuentro con la cultura y el lugar profundo de ésta en la conciencia, de la identidad rusa, de Rubliov, Dante, Leonardo, Pushkin, Bach, Pergolesi, Brueghel, Georges de la Tour, de las experiencias absurdas de la guerra, la propia y la de otros, de la Guerra Civil española y el stalinismo, de la madre que busca histéricamente un error de escritura en la imprenta donde trabaja, aterrada del castigo que puede costarle, de un incendio campestre que puede ser interpretado como un acto de purga estatal, de la amenaza de guerra con China por los incidentes fronterizos del río Ussuri, del fanatismo de una ideología que, en los años sesenta, se empeñaba salvajemente en borrar siglos enteros de memoria cultural, de pasado, de herencia humana...

Rax Rinnekangas

Zerkalo _ Errusiaren ispilua



Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía Fundazioak (www.coff.es) eta CICC Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak Rax Rinnekangas (Finlandiako Argazkilariaritza Sari Nazionala) artista eta zinemagile finlandiarren "**Zerkalo - Errusiaren ispilua** (Andrei Tarkovskyren omenez)" erakusketa inauguratuko dute. **Rax Rinnekangasen** erakusketarekin batera egile honen "Zahara&Urga"(2005) eta "Château de L'âme"(2004) eta **Andrei Tarkovsky** zuzendari errusiararen (1932-86), "Mirror"(1974) eta "Andrei Rublev"(1996) pelikulak eskainiko ditugu. Erakusketa azaroaren 16tik abenduaren 18ra bitartean egongo da ikusgai Tabakalerako eraikinean (Mandasko Dukearen pasealekua, 52). Asteartetik ostiralera 17:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan eta igandeetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik jendearentzat; astelehenetan itxita.

Antolatzaileak

FUNDACIÓN
COF CICC Centro Internacional de
Cultura Contemporánea
Kultura Garaikidearen
Nazioarteko Gunea

Babesleak




EL DIARIO VASCO



FRAME
Revista para la Arte Vasco



Ministerio de
Educación finlandés



Art council of
Finlandia

Laguntzaileak

GALERIA DIECISEIS
san sebastián



STUA
mobiliario contemporáneo

Rax Rinnekangas

Zerkalo- Errusiaren ispilua beste Errusia baten argia ezagutzeko argazkitan jasotako bidaia

Diziplina anitzak lantzen dituen **Rax Rinnekangas** (1954an jaioa) artista finlandiarren lan hau argazki serie bat da, kolore nabarmenetako, eta artistaren esanetan "Ama Errusia eta bertako jatorrizko bizimodua oraindik iraunazten dituen argi sakratu hori" deskribatzen du. Errusiaren lehenaldiko argi espiritual horrek oraindik ere herrialde handi eta misteriotsu horretako herrikkak eta hiri txikiak eta bertan nonahi dauden kultur eta erlijio guneak argitzen ditu. Argi horren pean, errusiar arruntek –izan duten historia odoltsuan hainbat kulturatatik errusiar bilakatutakoek– sistema politiko desberdinaren pean haien eguneroko bizitzak ordutegi bat eta diziplina bat izan chi zuen garaiaren nostalgia sentitzen dute. Eta aspaldiko garai hura gogora ekartzean ez dute pobrezia ikusten, errusiar modernoen artean bezala, urritasunari lotutako ongizatea baizik, errusiarak eta beren errealtitatea bereizi zituena, hau da, segurtasuna, orain hirietako langile klasearen artean ezeren gainetik nagusitzen den ziurgabetasun sakonaren aldean. Lehenaldian jendearen adimena talde-pertenentzi sentimendua eta bakardade sentimendua zuzentzen zuten aldi berean. Dualtasun horrek errusiarren izaera sorrarazi zuen, bizitzan guztia sentimendu primitibo sakon horren arabera neurtzen duten errusiarrena.

Hauxe dio **Rinnekangasek**: "Ama Errusiaren argi metafisikoak Leninek baino lehen eratu zuen bere identitatea, hark Utopian sinesten baitzuen; eta haren teorien emaitza hauxe izan da, Stalinismoan Europa zaharra bi zatitan banatu izana, Errusia beste aldean utziz – erabateko ilunpean. Baino beste Errusiaren argia ahalmen sakratu horren pean bertako ondare zaharra iraunazteko gai izan ziren errusiar intelektualen oroitzapenean mantendu zen, Leningradon bizi izandako hamarkada izugarri haien gorabehera... Argiak Errusiako langilerian eta landa-eremuko biztanleen artean egin zuen bere bidea, berrogeita hamarreko hamarkadan egin zuten bezalaxe autosufizientzi ekonomiatik bizi direlarik oraindik... Eta argi horrek atzerriko emigrante errusiarak ere espiritualki babesten diituenean, zein gizarte-mailakoak diren alde batera utzita, zurrara handi batek atzematen ditu, Alexander Solzenitzyni gertatu bezala, Nobel saria jaso zuen egileari, Estatu Batuan erbesteratuta egon zenean. Sistema Sobietarra etengabe kritikatzen bazuen ere, Solzenitzynek herrimin handia sentitu ohi zuen; eta hark sentitzen zuena ez zen, ez, Errusiako errealtitate politikoaren nostalgia, zegokion kulturaren eta bertako argiaren nostalgia baizik".

1995etik 2005era arte iraun duen "**Russian**" proiektu honetarako Tula, Yasnaya Polyana, Joskar Ola inguruko Volga eskualdeak, Kazan eta Kosmodemyansk, Kirow, Mosku eta San Petersburgo aukeratu zituen Rax Rinnekangasek argazkiak egiteko. Eta bere lanaren estimulu "**Mirror**" (1974) izan da, ospe handiko **Andrei Tarkovsky** (1932-86) zinema zuzendari errusiarren filma, proiekta film horri eskainitakoa izanik eta "**Andrei Rublev**" (1996) egile beraren.

Bere filosofiarri jarraituz Tarkovskyk irudiaren garrantzia azpimarratu zuen erreala denaren eta irreala denaren arteko muga gisa hartuz. Eta Rax Rinnekangasen indar handiko irudi hauetan, beren handitasunean, ahalmen harrigarriaz bihurtzen da egia tarkovskyren metodoa, argazkiaren nahiz zinemaren bitartez bestelako Errusia batera eta bere adimenaren argira zabaltzen diren atea bailiran.

Rax Rinnekangas

1954, Lapland. Multiartista finlandiarra.

Bere jaioterri Finlandian, **Rax Rinnekangas** diziplina anitzak lantzen dituelako (argazkilaria, idazlea eta zinemagilea da) bereizten da bere belaunaldikoen artetik.

Lantzen dituen gai nagusiak gure lehenaldiko oroitzapenak, gizakia eta objektua dira, dagokien espazio eta argi espiritual nahiz fisikoan.

Argazkilari gisa, Rinnekangas Europako 22 kulturatan aritu izan da bidaiatzen 1980 eta 2005 urte bitartean, proiektu luzeak garatzen, esate baterako Auschwitzeko oroitzapenak, kontinente zaharraren argia eta izaera eta Errusiako pentsamendua.

Bere lan bisualetan Tarkovskyren oinarritzko ikuspegiaren berri eman digu, irudi fisikoaren atzetik irudi espirituala dagoela aditzera emanez.

40tik gora bakarkako erakusketa egin ditu Finlandian eta atzerrian --azken urteotan egin izan dituen aipagarrienak Madrilgo Museo Nacional de Arte de Reina Sofia-n (2003) eta Berlingo Sachsenhausen Oroimenaren Gune eta Museoan(2003)--.

Rinnekangasek 20tik gora obra argitaratu ditu; argazki liburuak, saiakerak, nobelak eta ipuin laburrak.

Zinemagile den aldetik, Rinnekangasek dokumental eta film artistiko ugari egin izan ditu pinturari, eskulturari eta arkitekturari buruz baita Errusiari eta Balkanetako egoerari buruz ere.

Urte asko eman ditu atzerrian bizitzen, Spainian eta Alemanian, eta orain Finlandiako mendebaldeko kostan bizi da.

Rax Rinnekangasek jaso dituen sarien artean aipatzekoak dira Finlandiako Argazkilariaritza Sari Nazionala (1989) eta Finlandiako Literatur Sari Nazionala (1992).

Zahara&Urga (2005 - iraupena: 60 minuto)

Rax Rinnekangasen azkeneko film artistikoa da. Bertan, gizakiak bere burua aurkitzeko sentitzen duen premiari buruz hitz egiten digu, eta Europan, Errusian eta Afrikan girotzen da XX. mendean.

Filmak Zirkulu Artikotik gertu bizi den mutil isolatua baten historia kontatzen digu, egun batean argi fenomeno berezi batek beste pertsona baten ahotsa eman dion mutilarenaren.

Mutila argazkilari egingo da eta urteak emango ditu Europako kulturetan zehar bidaiatzen hitz egiten lagundu dion argiaren bila.

Egun batean Errusiako erdialdeko estepa (urga) batera iritsiko da. Bertan, hirurogei urte lehenago, 30eko hamarkadako Stalinen agintaldian, Andrew Powell izeneko gizon ingeles batek antzeko argi fenomeno bat jaso zuen argazki bidez.

Powellen bizitzaren aztarrenak ezagutu nahian, Europako eta Afrikako azkenaldiko historian begiratzen hasiko da eta ikerlan horretan hauxe jakingo du, Powellek 1909an Edward Hopper pintore amerikarra ezagutu zuela Parisen, eta 30eko hamarkadan Euskal Herrian bizi zela eta 1937an Gernikako bombardaketaren argazkiak egin zituela, Ipar Afrikara bizitzera joan aurretik.

Orain, hirurogei urte geroago, Afrika espainolean Powellek zuen Zahara izeneko etxera iritsiko da gure argazkilaria, eta bertan, Powellen argazkiak ikusita, argazkilari

misteriotsuak ateratako irudiak berearen antzekoak direla eta hark argazkitan jasotako lekuak eta berak jasotakoak berberak direla konturatuko da.

Gainera, Powell bera jaio zen egun berean hil zela jakingo du.

Beraz, hortxe sortzen da misterioa: zer dira bi gizon horiek bata bestearrentzat?

Film berezi honetan Tarkovskyren gai berak aztertzen ditu Rinnekangasek, gizakioi dagokigun leku fisiko eta espiritualaren nostalgia hori, alegia; kasu honetan, ordea, protagonistaren beraren identitatea izango da leku hori.

Rax Rinnekangasek berak egindako 400 bat argazki eskaneatu zituen zinema proiektu honetarako, eta artxiboetako filmak eta argazkiak ere erabili zituen material gisa, agertzen diren irudi bizidunez gain.

Zahara&Urga Andrei Tarkovskyren Mirror filmari egindako omenaldia da. Rax Rinnekangasen arabera "foto-zinema" eta "Europaren isipilua" da emaitza.

Château de l'âme (Arimaren gaztelua, 2004 - iraupena: 56 minutu).

Rax Rinnekangasen film hau nazioartean ospetsu bihurtutako Kaija Saariaho oraingo musika konpositore finlandiarren eta Nacho Angulo artista bisual euskal/brasildarraren lanen elkartze espiritualari buruzkoa da, baita giza arimak barruan duena ulertzeko saioari buruzkoa ere.

Château de l'âme, zortzi atalez osatutako abesti zikloa, Parisen bizi den Kaija Saariahok konposatu eta osatu zuen 1995ean; filmean, Madrilen bizi den Nacho Angulok urki zurezko 15.000 bat pieza erabiltzen ditu abesti ziklo honi buruzko bere interpretazioa egiteko.

Lan prozesu luzean zehar, Nacho Anguloren adimena Finniadiako urkien artean eta urki basoetan barrena bidaiatzen da 'urki neska' txiki baten itxura hartuta, urkiaren testuinguru mitologikoa eta arima eta Finlandian, Ama Errusiaren ondoan igarotako haurtzaroko paisaia espiritual horrekin Kaija Saariahok duen lotura hori bila nahian.

Bi artista horiek ez dute zuzenean elkar ezagutzen, baina Kaija Saariahok bere musikaren funtsezko asmoa deskribatuz erantzuten dio bilaketa horri; konposizioaren bidez amaierarik gabeko espazioan barrena eta arimaren bizileku eta hausnarketarako gune izan daitekeen espazioan barrena bidaiatuz.

Filmak kultura desberdinaren arteko mugak zeharkatzen dituen espazioan izandako elkartze hori aditzera ematen digu. Eta espazio horretan, Nacho Anguloren lan prozesuari hasiera ematen dion abiapuntua, musika garaikidea oinarri duena, atsekabe pertsonal sakona izan da, arimaren gazteluak biltzen dituen edukiak bilatzeko premiak eragindakoa.

Château de l'âme-n, Kaija Saariahok konposatutako bost ataleko abesti zikloak musika gisa ez ezik "aktore" gisa ere dihardu. Beraz, musika garaikidearen obra hau bere osotasunean entzun ahal izango dugu filmean - eta ez bakarrik zinemarako sortutako musika gisa.

Dokumental hunkigarri honetako kantaria Dawn Upshaw da, nazioartean ospe handia duen soprano amerikarra, eta Finniadiako Irrati Orkestra Sinfonikoak interpretatutako musika Esa-Pekka Salonenek zuzendutakoa da, Los Angelesko Orkestra Filarmonikoaren zuzendariak, gaur egungo nazioarteko musika munduan maisu gailenetakoak.

Titulua: Zahara&Urga
Herrialdea: Finlandia
Urtea: 2005
Zuzendaritza: Rax Rinnekangas
Gidoia: Rax Rinnekangas
Iraupena: 59', 40''

Sinopsis

Rax Rinnekangasen azkeneko film artistikoa da, gizakiak bere burua aurkitzen behar duen denborari buruzkoa, XX. mendeko Europan, Errusian eta Afrikan girotua.

Zirkulu Artikotik gertu bizi den mutil isil baten historia da, argi fenomeno berezi batek beste pertsona baten ahotsa eman zion mutilarenaren.

Mutila argazkilari egin da eta urteak emango ditu Europako kulturetan zehar bidaiatzen, hitz egiten lagundu zion argi horren bila.

Egun batean estepara (Urga) helduko da, Erdialdeko Errusiara, Andrew Powell izeneko ingeles batek 60 urte lehenago, 1930eko erregimen stalinistan, argi fenomeno beraren argazkiak egin zituen lekura.

Powellen bizitza ikertzeari ekingo dio Europako eta Afrikako azkenaldiko historian zehar eta ikerlan horretan Powellek 1909an Parisen Edward Hopper pintore amerikarra ezagutu zuela jakingo du. 30eko hamarkadan Euskal Herrian bizi izan zen eta bertan 1937ko Gernikako bombardaketaren argazkiak atera zituen, Afrikako iparraldera joan aurretik.

Orain, 60 urte beranduago, gure argazkilaria Powellen etxera iritsi da, Zahara izenekora eta, han, Powellen argazkiak ikusita, argazkilari misteriotsuak ateratako irudiak berearen antzekoak direla eta hark argazkitan jasotako lekuak eta berak jasotakoak berberak direla konturatuko da.

Gainera, Powell bera jaio zen egun berean hil zela jakingo du.

Titulua: Château de L'âme.

Urtea: 2004

Zuzendaritza: Rax Rinnekangas

Gidoia: Rax Rinnekangas

Iraupena: 56'

Sinopsis

Rax Rinnekangasen film hau Kaija Saariaho musika modernoaren konpositore finlandiar ospetsuaren eta Nacho Angulo artista bisual euskal/brasildarraren lanen elkartze espiritualari buruzkoa da, baita giza arimak barruan duena ulertzeko saioari buruzkoa ere.

Château de l'âme, bost atalez osatutako song-cycle hau, Kaija Saariahok Parisen konposatua, 1995ean osatu zen Madrilen; filmean, Nacho Angulok urki zurezko 15.000 bat pieza erabiltzen ditu song-cycle honen interpretazioa eginez.

Lan prozesu luzean zehar, Nacho Anguloren irudimena Finlandiako urkien artean eta urki basoetan barrena bidaiatzen da "urki neska" txiki baten itxura hartuta, urkiaren hondo mitikoa eta arima eta Finlandian, Ama Errusiaren ondoan igarotako haurtzaroko paisaia espiritual horrekin Kaija Saariahok duen lotura hori bilatu nahian.

Bi artista horiek ez dute elkar ezagutzen, baina Kaija Saariahok bere musikaren oinarritzko deskribapenaren bidez erantzuten dio bilaketa horri; komposizioaren bidez denboratik kanpo dagoen eta fisikoa ez den espazioan barrena bidaiatuz, arima bizi daitekeen lekura.

Filmak kultura desberdinaren mugen gurutzagunean deskribatzen du elkartze hori. Eta espazio horretan, Nacho Anguloren lan prozesuari hasiera ematen dion abiapuntua, musika modernoa oinarri duena, atsekabe pertsonal sakona izan da, arimaren gazteluaren edukiak bilatzeko premiak eragindakoa.

Chateâu de l'âme-n Kaija Saariahok konposatutako bost ataleko song-cycle honek pelikularen musika gisa ez ezik "aktore" gisa ere dihardu. Beraz, musika moderno hau pelikulan zehar entzungo dugu, ez bakarrik zinerako sortutako musika gisa.

Dokumental hunkigarri honetako ahotsa Dawn Upshaw da, nazioartean ospe handia duen soprano amerikarra, eta Finlandiako Irrati Orkestra Sinfonikoak interpretatu du musika, Esa-Pekka Salonenek zuzenduta, Los Angelesko Orkestra Filarmonikoaren zuzendariak eta gaur egungo maisu gailenetakoak.

Titulua: Andrei Rublev

Herrialdea: Errusia

Urtea: 1964-1966

Zuzendaritza: Andrái Tarkovsky

Gidoia: Andrei Mikhalkov-Konchalovski, Andrái Tarkovsky.

Sariak: Cannes: Nazioarteko Kritikaren Saria -FIPRESCI-(1969).

Paris: Zine Kritikarien Elkartearen Saria (1969).

Paris: Frantziako Akademiaren Kristalezko Izarra, emakumezko antzezle onenarentzat (1972).

Helsinki: Urteko Pelikula Onenaren Saria (1973).

Stradford: Diploma, Nazioarteko Zinemaldian (1973).

Filtro Saria (1973). Belgrado: Sari Nagusia (1973).

Belgrado: Pelikula Onenaren Saria (Zineko Langileen Sindikatua) (1973).

Belgrado: Ikusleen Epaimahaiaren Bigarren Saria (1973).

Iraupena: 200'

Sinopsis:

XV. mendearren hasieran Andrei Rublev monje pintorea Moskura joan zen bere kideekin batera Kremlineko Jasokundeko Andre Mariaren Katedraleko freskoak pintatzera. Bere gelako bakardadea atzean utzita, laster hasiko da jabetzen Errusiako herria ikaratuta utzi duten torturez, krimenez eta hilketez.

Andrei Rublevekin, Tarkovskyk kolorezko eta zuri-beltzezko pelikulen justaposizioa ezarri zuen, bere ibilbide profesionalean lantzen eta bikaintzen jarraitu zuen praktika. Pelikula honetan kolorea Rubleven pinturen muntaiaren azkeneko eszena hunkigarrian bakarrik agertzen da, Erdi Aroko bizitzari eta heriotzari buruzko pasarte izugarri batzuetan. Pasarte horien ondoren Rubleven transformazioa aditzeria ematen zaigu, pintore idealista izatetik monje izatera, bere herrikideek bizi duten sufrimenduarekiko erreakzio gisa isiltasuneko zina eginez. Katarsi egoeran, amaieran bakarrik inspiratuko da kanpaigile bat bere aurreneko kanpaia egiteko eginahaletan ikustean, huts eginez gero heriotza zain duena.

Titulua: Mirror
Herrialdea: Errusia
Urtea: 1972
Zuzendaritza: Andrái Tarkovsky
Gidoia: Andrái Tarkovsky eta Aleksandr Misharin
Narratzailea: Innokenti Smoktunovski, Arseni Tarkovsky bere olerkiak irakurriz
Iraupena: 106'

_Sinopsis:

Oraingo gizona, intelektuala, idazlea edo zine zuzendaria, emaztearekin ari da hizketan bizitzen ari diren egoeraz, elkarrengandik urrunzera eraman dituzten arrazoiez, elkarrekin partekatzen duten semearekiko maitasunaz. Hausnarketek eta elkarren arteko kexek orain arte igarotako urteen oroitzapenak piztu dituzte gizon honengan, naturaz eta sentsazioez inguratutako nekazaritza giroko haurtzaroa, gurasoak urrundu zituen gerra, haiiek ere elkarrengandik bananduta, kulturarekin izandako elkartzea eta kulturak kontzientzian hartu duen leku sakona, Errusiaren identitatea, Rubliov, Dante, Leonardo, Pushkin, Bach, Pergolesi, Brueghel, Georges de la Tour, gerraren zentzugabeko esperientziak, norberarenak eta gainerakoenak, Espainiako Gerra Zibila eta stalinismoa, lan egiten duen inprimategian idazketa akatsen bat histerikoki bilatzen ari den ama, huts egiten badu jasoko duen zigorragatik ikaratuta, estatuaren garbiketatzat har daitekeen mendialdeko sutea, Txinaren aurkako gerra mehatxua Ussuri ibaiko mugako erasoek eraginda, ideologiaren fanatismoa, hirurogeiko hamarkan mendeeetako oroimen kulturala indarrez suntsitzen ahalegindu zena, lehenaldia, giza ondarea.